



1. TUTOREAREN FUNTZIO ETA ZEREGINAK

1. Eremua : Zuzenean ikasleekin garatu beharreko ekintza, bai taldean, bai banaka ere.
2. Eremua: Irakasleekin banaka eta gelako irakasle-taldearen parte gisa garatu beharreko ekintzak.
3. Eremua: Ikasleen familiarekin eta/edo legezko arduradunekin eta beste gizarte-eragile batzuekin garatutako ekintzak.

2. TUTORETZA PLANAREN GARAPENA LEHEN HEZKUNTZAN

- 2.1. ORIENTAZIO ARLOAREN HELBURUAK LEHEN HEZKUNTZAN
- 2.2. TUTORETZA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

3. TUTORETZA JARDUEREN DENBORALIZAZIOA

- 3.1. HAUR HEZKUNTZA
- 3.2. LEHEN HEZKUNTZA. 1.ZIKLOA
- 3.3. LEHEN HEZKUNTZA. 2.ZIKLOA
- 3.4. LEHEN HEZKUNTZA. 3.ZIKLOA

4. TUTORETZA SAIOAK ZIKLOKA

- 4.1. HAUR HEZKUNTZA
- 4.2. LEHEN HEZKUNTZA. 1.ZIKLOA
- 4.3. LEHEN HEZKUNTZA. 2.ZIKLOA
- 4.4. LEHEN HEZKUNTZA. 3.ZIKLOA

5. ERANSKINAK

1. TUTOREAREN FUNTZIOAK ETA ZEREGINAK

Tutorearen funtzioak eta zereginak hiru jardun-eremutan garatzen dira:

1. Eremua: Zuzenean ikasleekin garatu beharreko ekintza, bai taldean, bai banaka ere.

Tutoreak ikasleei laguntzeko eta jarraipenerako ekintzak garatzen ditu, bai talde mailan, bai banaka ere.

Ikasleekin bakarka:

- **Ikas-kontratuak:** bertan familia, ikaslea eta irakasleak parte hartzen dute. Horien xedea, portaera edota ikasketa helburu komunak adostea da, denon artean konpromisoa hartzen delarik.
Familiarekin egiten den ikasturteko lehenengo bileran edota egokia ikusten den unean egiten dira; beharrezkoa den kasuan, egiteko momentua aurreratzen da.
- **Berrazterketa:** kontratua egiterakoan, honi buruzko jarraipena egiteko eguna jartzen da.
- **Ebaluazio-txostenak: Lehen Hezkuntzan** hiru hilez behin eta haur hezkuntzan (3, 4 eta 5 urte) birritan egiten da, ikaslearekin esku hartzen duten irakasle guztien ebaluazio-saio ondoren.
- **Ikasleekin bakarkako elkarrizketak:** Tutoreak edo ikasleak hala eskatuta.
- **Tutorea da ikasle bakoitzaren jarraipen osoaren eta laguntzaren arduraduna**, ikasle bakoitzak bere proiektu pertsonala eraiki dezan. Horregatik, ikasturtean zehar, taldea ezagutu ondoren, ikasle zehatz batzuegan beharrak detektatzen ditu, eta laguntza bilatzen du orduz kanpoko laguntzaren bidez edo ikaslearen ebaluazioa eskatzen dio aholkulariari edo Berritzeguneari (talde multiprofesionala).
- **Haur Hezkuntzan**, “Haurren garapenaren jarraipenerako” protokoloa pasatzen zaie umeei. 4 eta 5 urtekoei azaroan eta 2 eta 3 urtekoei otsaila eta martxoaren bitartean. Protokoloaren helburua da, garapenean izan daitezkeen nahasmenduak goiz detektatzea eta eskola eremutik esku hartzeko prozesuari ekitea, osasun eta gizarte arloko zerbitzuen laguntzarekin.

Talde mailan:

- Ikasturte hasieran, tutore bakoitzak bere ikasleei informatzen die zer ordutegi eta irakasle izango duen arlo bakoitzean, eta denen espazio eta materialaren erabilera ezagutarazten die. Era berean, lehenengo egunetan eskolako elkarbizitza arauak adosten dira, eta talde kohesioa lantzeko jolasak eta dinamiketan aritzen dira. Lehen Hezkuntzan taldeak bere ikasle ordezkaria aukeratzen du.
- **Lehen Hezkuntzan Tutoretza ordua:** astean behin saio batean lantzen dira elkarbizitzako alderdi zehatzak, ikasleen arteko arazo bat aztertzen da eta jokabideak edo irtenbideak bilatzen dira.

- **Lehen Hezkuntza ikasleen ordezkariak:** ikasturtearen hasieran, gela bakoitzean ikasleek beren ordezkariak aukeratzen dute. Hauek, ikasketa buruak deituko dien bileretara joango da.
- **Gertakarien koadernoak:** tutoretzan gertatu den edozein gertaera berezia jasotzen du tutoreak koadernoan.

2. Eremua: Irakasleekin banaka eta gelako irakasle-taldearen parte gisa garatu beharreko ekintzak.

Tutorea da irakasle-taldearen koordinatzailea; hau da, ikasle-talde beraren hezkuntza-jardunean eragina duten irakasle guztien ekintzen koordinazioaren arduraduna da.

- ∞ Taldean interbenitzen duten irakasle guztiek etengabeko informazioa dute tutorearekin, arlo akademikoan nahiz portaeran detektatzen den edozein arazoaren aurrean.
- ∞ Familiarekin bakarkako bilera egin aurretik, tutoreak informazioa jasotzen du ikasle horren hezkuntza-prozesuan esku-hartzen duten irakasle guztiengandik.
- ∞ Tutoreak ikasleen informeak betetzen ditu. Horretarako ebaluazio-saioa egiten da ikastaldean interbenitzen duten irakasleekin.
- ∞ ACI-ak tutoreak egiten ditu, aholkularia, ikaslearen PT-a eta behar diren espezialisten laguntzarekin. Ikasturtearen hasieran ACI-aren jarraipenerako egutegia egiten da.
- ∞ Ikasle jakin batekin bestelako profesionalek interbenitzen badute (PT-a, HIPI-a, gizarte-hezitzailea,...) tutoreak guztien ekintzak koordinatzen ditu aholkulariaren laguntzaz. Koordinaziorako egutegia ikasketa-buruak egiten du, tutorearen ordu libreetan egiten saiatuz.
- ∞ Tutoreak eta HIPI-ak, behar duten ikasleen gelako programazioa egiten dute batera, batez ere euskara eta ingurune arloetakoa.
- ∞ Tutoreak, zikloko irakasleekin batera Tutoretza Planaren programazioa eta ebaluazioa egiten du. Irailean Tutoretza Plana errebisatzeko eta tutore berriei ezagutzera emateko momentua da.
- ∞ Ikasturtearen zehar zuzendaritza taldeak, hezkuntza sailak, ... eskatzen dituzten datuak ematen dituzte. Zikloaren bukaeran aktak betetzen dituzte.
- ∞ Ziklo amaieran, hau da, HH5, 2. maila, 4. maila eta 6. Maila amaitzean, taldea uzten duen tutorea eta tutore berria biltzen dira talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa pasatzeko.

3. Eremua: Ikasleen familiarekin eta/edo legezko arduradunekin eta beste gizarte-eragile batzuekin garatutako ekintzak.

Ezinbestekoa da tutoreak hezkuntza-arloko esku-hartzearen koordinazioa egin dezala, ikasleen ikasketa- eta orientazio-prozesuan esplizituki esku hartzen duten familiarekin eta gizarte-zerbitzuekin. Horretarako eskola honetan ekintza hauek egiten dira:

- Ikasturte lehenengo egunean bilera orokorra antolatzen da familiekin. Geroago, mailaz maila tutoreekin elkartzen dira. Bileran aipatuko diren gaiekin gidoi bat egiten da Zikloetan, eta bilera horien ordutegia antolatzen da, ordu berean bat baino gehiago ez izateko.
- Lehenengo hiruhilabetean, ahalik eta lasterren, familia guztiei koadernotxo bat (eskola gida) iritsarazten zaie; bertan, eskolako informaziorik garrantzitsuen dago (egutegia, ordutegia, irakasleen zerrenda, OOGko partaideak, AMPA, materiala, kuotak, jantokiko zerak, ...)
- Tutore guztiek ikasle bakoitzaren familiarekin bilera bat egiten dute gutxienez; gehiago ere egin daiteke, irakasleak edo familiak eskatuta. Bilera hauek hilabete bakoitzeko 1. eta 3. Astelehenetan egiten da, esklusiba-orduan; familiak ezin badu, beste hitzordu bat adosten dira.
- **Lehen Hezkuntzan**, hiruhilabeteko bakoitzaren bukaeran, gurasoek txosten idatzi bat jasotzen dute ikaslearen ebaluazioarekin. Horrez gain, ikasturtean zehar, 2 elkarrizketa pertsonalak egiten dira.
- **Haur Hezkuntzan**, jarraian, familiekin egiten diren bilerak zehazten dira adinaka. Horrez gain, ikasturtean zehar elkarrizketak egiten dira irakasleek edo familiek eskatuta, behar den maiztasunarekin.
 - **2 urte:** aurreko ikasturte bukaeran (ekainean), matrikula egin duten familiekin bilera orokorra egiten da ordutegia, egoitzapen-prozesua, etabarri buruz. Eta bilera bat egiten da familia bakoitzarekin informazioa jasotzeko (datu-eskala). 3 urteko matrikula berriak ere etortzen dira bilera honetara. Ikasturte-bukaeran informe idatzia egiten da familiei banatzeko ale bat eta beste bat eskolan uzteko, eta banakako elkarrizketak familiekin.
 - **3 urte:** ikasturte-hasieran bilera orokorra egiten da ordutegia, egoitzapen-prozesua, etabarri buruz. Otsailean banakako elkarrizketak egiten dira ikasleen jarraipenerako. Ikasturte bukaeran informe idatzia egiten da eskolan uzteko eta kopia bat familiari ematen zaio. Lehenengo hiluhilabetean eta hirugarrenean informe idatziak eta bigarrenean ahozko elkarrizketa.
 - **4 urte:** ikasturte-hasieran bilera orokorra egiten da. Otsail-martxoan banakako elkarrizketak egiten dira ikasleen jarraipenerako. Ikasturte bukaeran informe idatzia egiten da eskolan uzteko eta kopia bat familiari ematen zaio.
 - **5 urte:** ikasturte-hasieran bilera orokorra egiten da ordutegia, egokitzapen-prozesua, etabarri buruz. Ikasturte bukaeran informe idatzia egiten da eskolan uzteko eta kopia bat familiari ematen zaio.
- **Lehen Hezkuntzan** ikasturtean zehar, sortzen diren abisuak, informazioak eta iradokizunak komunikatzen dira.
- **Jarduera osagarriak** daudenean (barnetegiak, irteera bereziak) gelako bilerak egiten dira, informazio zuzena emateko eta zalantzak argitzeako.

- **Gizarte Ongizatearekin** ohiko koordinazio-bilerak egiten dira hiruhilean behin. Bilera hauen xedea, arrisku egoeran dauden familia eta ikasleengan lortu nahi ditugun helburuak adostea eta denok bide berdinetik lan egitea izango da. Bileretan egoten direnak hauexek dira: tutorea kasu berri eta larrietan eta benetan beharrezkoa denean. Bestetik, aholkularia, ikasketa-burua, Berritzeguneko talde multiprofesionaleko aholkularia, udaleko gizarte zerbitzuak (kale-hezitzailea, familia-hezitzailea, gizarte langilea,...)
- Era berean, aholkulariak egiten dituen bileren informazioa zabaltzen die tutoreei. Bilera hauen helburua, beraiek egiten ari diren taldeko nahiz banako proiektuak ezagutzea da, eta beraiekin ari diren ikasleen eskolako jarduerari buruzko informazioa ematea. Bilerak hiruhilabetekoak edo hilabete t´erdikoak izan daitezke, interbentzioaren arabera...
- Aurrekoekin eta beste erakunde batzuekin (Gizarte zerbitzuak, Osatuz,...) kolaboratzen da hiruhilean behin; bertan, momentu zailak pasatzen ari diren ikasle batzuen jarraipena egiten da eta beraiekiko jarduerak koordinatzen dira. Kasu batzuetan, arazoak duen zailtasunagatik, jarraipena eta koordinazioa hilean behin edo hamabostero egin behar da, beharren arabera.
- Ikasle etorkinekin, batzuetan, eta tutoreak hala eskatuta, Hezkuntza Saileko itzultzaileek eta Udalako bitartekari kulturalak hartzen dute parte, ikasle eta honen familiaren harrera eta beraiekiko komunikazioa errazteko.

2. TUTORETZA PLANAREN GARAPENA

2.1. ORIENTAZIO ARLOAREN HELBURUAK

Orientazio eta tutoretzaren helburu gisa honako gaitasunak zehaztu ditugu, Lehen Hezkuntza etapa zehar garatzeko:

- a. **Gelako eta Ikastetxeko bizitzan parte hartzea, jardueretan eta gelako funtzionamenduari buruzko erabakietan esku-hartzea, elkarbizitza-arauak errespetatzea, arduraz, errespetuz eta jarrera kritikoz jokatzeko.** (Elkarbizitzarako kompetentzia eta konpetentzia sozial eta zibikoa)
 - Bost urtetik 6. maila arteko ikasleek eskolako araudia egiten dute. Araudia egiteko prozesua berdina da eskola osoan eta Tutoretza Plan honetan eransten da.
 - Eskolako eremu desberdinetan parte hartzea errazteko, Lehen Hezkuntzan gela guztietan ikasle-ordezkarria izendatzen da.
 - Ordezkarri horiek hilean behin elkartzen dira ikasketa buruarekin, eskolako elkarbizitzarekin erlazionatzen diren gaiak lantzeko, zailtasunak eta irtenbideak edo hobekuntzarako iradokizunak.
 - Hirugarren zikloko ordezkariek **Elkarbizitzarako Behatokian** parte hartuko dute. Beharren arabera izango da parte-hartzea, gutxienez hiruhilean behin.

b. Inguruko pertsonekin harremanetan jartzea, eta pertsona horiei

laguntzea, entzutea eta haiekin komunikatzea, besteak aintzat hartzeko, eta besteekin jolasteko, ondo pasatzeko eta lan egiteko gai izateko. (Elkarbizitzarako konpetentzia eta konpetentzia sozial eta zibikoa)

- Ikasketa kooperatiboko dinamiketan lan egiteak gaitasun hauen garapenean laguntzen du.
- Gelako lanak talde txikietan edo bikoteka egiteak laguntzen du ere bai.
- Eskolako jolastokian txandak egiten dira jardueraz aldatzeko egun bakoitzean dagokionari lehentasuna emanaz; Lehen Hezkuntzan saskibaloia, futbola eta jolas librea, eta Haur Hezkuntzan baloi egunak eta baloi gabeko egunak. Antolaketa honekin genero desberdintasunak gutxitzen dira eta sormena lantzen da.
- Espazio irekietan jolasteko euskarazko kanta-jolasak landuko dira tailerretan (Haur Hezkuntzan)
- Jantoki orduetan taldeko jarduerak egiten dira, ondo pasatzeko eta giroa hobetzeko (liburutegia, tailerrak, ludoteka,...)

c. Bere buruaren ezagutza aztertzea, auto-estimua egokia garatzeko eta segurtasunez aurre egiteko egoera berriei. (Norbera izaten ikasteko eta ekimenerako eta espiritu ekintzaileko konpetentzia. Konpetentzia sozial eta zibikoa)

- Bakarkako esku-hartzeen bidez garatzen da: tutorea ikasleekin, edo ikasketa-burua eta zuzendaria ikasleekin.
- Kasu berezietan, gelako hezitzaileen lana erabakigarria da gaitasun honen garapenean.

d. Irizpideak erabiliz aztertzea eguneroko bizitzako esperientziak eta gatazka egoerak, eta aukerak baloratzea, erabakiak autonomiaz eta errespetuz hartu ahal izateko. (Norbera izaten ikasteko eta ekimenerako eta espiritu ekintzaileko konpetentzia. Konpetentzia sozial eta zibikoa)

- Eremu honetan ikastetxeak antolatu duen gatazken ebazpenerako prozesuak aparteko eragina du, eta Tutoretza Plan honetan eranstean da.
- Jantokian eta jolastokian izaten diren esku-hartzeak, egoera gatazkatsuen aurrean, egoera lasaitzeko eta gertatutakoari buruz hausnartzen saiatuz, irteera bat bilatuz.
- Gaitasun hauek garatzeko ziklo bakoitzean jarduerak egiten dira tutoretza saio egituratuetan; saioak zikloetan zehazten dira aurrerago.

Horrez gain, tutoretzaz aparte edo saio egitaratuak egin ordez, gelan edo gelatik kanpo gertatutako gatazkak aztertzen dira, horiei buruz hausnartzeko eta alternatibak bilatzeko; era berean gizarteko edo ikas-komunitateko elkarbizitzan eragin berezia duten egoerei buruzko hausnarketa egiten da.

2.2. TUTORETZA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ikasturtean, maila bakoitzeko tutore-taldeak Tutoretza Planaren garapenaren jarraipena egingo du.

Ikasturtea amaieran, ikasturtearen martxa eta Tutoretza Planaren ebaluazioa egingo dute, eta baita hauen garapenari buruzko amaierako memoria ere. Memorian idatziko dute tutoreek, ikasleek eta lankide diren beste eragileek egindako behaketen laburpena, ondo atera diren alderdiak, sortutako zailtasunak eta aldatu beharko diren gauzak.

Ebaluaziotik ateratzen dituzten ondorioak kontuan hartuko dituzte, hurrengo ikasturtean egin beharreko aldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Tutoretza Planaren ebaluazioa egiteko, irizpide hauek erabil daitezke, besteak beste:

- ∞ Jardueren egokitasuna, helburuak lortzeko.
- ∞ Jarduera-eremuetan aurrera eramandako ekintzen egokitasuna.
- ∞ Irakasle-taldearen eta familien parte hartzea.

TUTORETZA PLANA 2017-18

3. TUTORETZA JARDUEREN DENBORALIZAZIOA

3.1. HAUR HEZKUNTZA

DENBORALIZAZIOA HH	TUTOREAK IKASLEEKIN HH	TUTORE/IRAKASLEAK HH	TUTOREA FAMILIEKIN HH	BESTELAKO EREMUAK
IRAILEAN/URRIAN	∞ Ikastetxeko elkarbizitza arauak lantzen ditu.	∞ Tutore bakoitzak, zikloko irakasleekin batera Tutoretza Planaren programazioa egiten du.	∞ 3, 4 eta 5 urte: informazio bilera orokorra egiten da. Horretan familia guztiei eskola gida helarazten zaie informazio orokorrarekin.	
AZAROAN	∞ 4 eta 5 urte: "Haurren garapenaren jarraipenarako" protokoloa pasatzen zaie.			
ABENDUAN		∞ Ebaluazio bilerak: irakasle guztien informazioa jasotzeko, taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko eta zuzentzeko neurriak hartzeko.	∞ 2 urteko geletan gurasoekin bakarkako bilerak egiten dira, ikasleen jarraipenerako.	
OTSAILEAN	∞ 2 eta 3 urte: "Haurren garapenaren jarraipenarako" protokoloa pasatzen zaie.			
MARTXOAN		∞ Ebaluazio bilerak , irakasle guztien informazioa jasotzeko, taldeko eta bakarkako garapenaren jarraipena egiteko eta zuzentzeko neurriak hartzeko.		

TUTORETZA PLANA 2017-18

EKAINEAN		<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio bilerak, irakasle guztien informazioa jasotzeko, taldeko eta bakarkako garapenaren jarraipena egiteko eta zuzentzeko neurriak hartzeko. ∞ HH5 amaitzean, taldea uzten duen tutorea eta tutore berria biltzen dira, talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa pasatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Gurasoekin bakarkako bilerak egiten dira, ikasleen jarraipenerako. ∞ Ikasturte-bukaeran txosten idatzia egiten da, eskolan uzteko eta kopia bat familiari ematen zaio. ∞ 2 eta 3 urteko berriak: bilera orokorra egiten da ordutegia, egoitzapen-prozesua, etabarri buruz. 3 urteko matrikula berriak ere etortzen dira bilera honetara. 	
BEHAR DENEAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikasle zehatzen beharrak detektatzen ditu laguntza bilatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Bestelako profesionalak parte hartzen badute (Aholkularia, PTa, ALEa, Gizarte-hezitzailea, Eskolako-hezitzailea, ...) tutoreak guztien ekintzak koordinatzen ditu. 		
ERA SISTEMATIKOAN, ASTEAN BEHIN			<ul style="list-style-type: none"> ∞ Lehenengo eta hirugarren astelehenean eskusiba orduan tutoreak familiekin bilerak egiteko aukera du. ∞ 	
URTEAN BEHIN GUTXIENEZ				

TUTORETZA PLANA 2017-18

3.2. LEHEN HEZKUNTZA. 1.ZIKLOA

DENBORALIZAZIOA LH	TUTOREAK IKASLEEKIN LH-1.ZIKLOA	TUTORE/IRAKASLEAK LH-1.ZIKLOA	TUTOREA FAMILIEKIN LH-1.ZIKLOA	BESTELAKO EREMUAK LH-1.ZIKLOA
IRAILEAN/URRIAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Tutoreak ikasleei informatzen die zer ordutegi eta irakasleak izango dituzten gai bakoitzean. ∞ Ikastetxeko elkarbizitza arauak lantzen ditu. ∞ Taldeak ikasle ordezkaria aukeratzen du. ∞ Talde-kohesioa lortzeko dinamikak lantzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Tutore bakoitzak, zikloko irakasleekin batera Tutoretza Planaren programazioa egiten du. ∞ Egokitzapenak tutoreak egiten ditu, aholkularia, ikaslearen PT-a eta behar diren espezialisten laguntzarekin. Ikasturtearen hasieran egokitzapen jarraipenerako egutegia egiten da. ∞ Familien bilera orokorra prestatzen dute. ∞ HH5 taldea utzi zuen tutorea eta 1. mailako tutore berria biltzen dira, talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa pasatzeko. Baita 2. maila utzi zuen tutorea 3. mailako tutore berriarekin ere. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Familiekin bilera orokorra. Horretan familia guztiei eskola gida helarazten zaie informazio orokorrarekin. 	
ABENDUAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio-txostena 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio bilerak, taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio-txostena ∞ Familiekin bakarkako bilerak 	
MARTXOAN		<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio bilerak, taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Familiak txosten idatzia jasotzen du ikaslearen ebaluazioarekin. 	

TUTORETZA PLANA 2017-18

		jasotzeko.		
EKAINEAN	∞ Ebaluazio-txostena	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio bilerak, taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko. ∞ Ziklo bukaeran aktak egiten dira. ∞ Egokitzapenen balorazioa egiten da. ∞ Ziklo amaieran PIREko I.Eranzkina betetzen da arlo guztiak gainditzen ez dituzten ikasleei. ∞ Ikasturtearen martxa, Tutoretza Plana barne, baloratzen da eta Memoria egiten da. ∞ LH2. mailako taldea uzten duen tutorea eta 3. mailako tutore berria biltzen dira, talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa pasatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio-txostena ∞ Familiekin bakarkako bilerak 	
BEHAR DENEAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikasleekin bakarkako elkarrizketak. ∞ Gatazken ebazpena. ∞ Ikasle zehatzen beharrak detektatzen ditu laguntza bilatzeko. ∞ Gertakarien koadernoak. ∞ Ikas-kontratuak 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Bestelako profesionalak interbenitzen badute (Aholkularia, PTa, HIPIa, ALÉa, Gizarte-hezitzailea, Eskolako-hezitzailea, ...) tutoreak guztien ekintzak koordinatzen ditu. ∞ Tutoreak eta HIPIak, behar duten ikasleentzat, gelako 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikasturtean zehar sortzen diren abisuak, informazioak eta iradokizunak komunikatzen dira. ∞ Jarduera osagarriak daudenean (barnetegiak) bilerak 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Eskolan parte hartzen duten zenbait erakundeekin ikasleei buruzko koordinazio bilerak egingo dira (Gizarte zerbitzuak, ...) ∞ Gizarte-Ongitatearekin, ohiko koordinazio bilerak.

TUTORETZA PLANA 2017-18

	∞ Ikasle berriak heltzen direnean, Harrera Plana martxan jartzen da.	programazioa egiten dute batera, batez ere Euskara eta Ingurune arloetan.	egiten dira familiei informazioa helarazteko.	(Hilabetean behin)
ERA SISTEMATIKOAN, ASTEAN BEHIN	∞ Tutoretza saioa			
URTEAN BEHIN GUTXIENEZ				

3.3. LEHEN HEZKUNTZA. 2.ZIKLOA

DENBORALIZAZIOA LH	TUTOREAK IKASLEEKIN LH-2.ZIKLOA	TUTORE/IRAKASLEAK LH-2.ZIKLOA	TUTOREA FAMILIEKIN LH-2.ZIKLOA	BESTELAKO EREMUAK LH-2.ZIKLOA
IRAILEAN/URRIAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Tutoreak ikasleei informatzen die zer ordutegi eta irakasleak izango dituzten gai bakoitzean. ∞ Ikastetxeko elkarbizitza arauak lantzen ditu. ∞ Taldeak ikasle ordezkaria aukeratzen du. ∞ Talde-kohesioa lortzeko dinamikak lantzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Tutore bakoitzak, zikloko irakasleekin batera Tutoretza Planaren programazioa egiten du. ∞ ACI-ak eta egokitzapenak tutoreak egiten ditu, aholkularia, ikaslearen PT-a eta behar diren espezialisten laguntzarekin. Ikasturtearen hasieran ACI-aren jarraipenerako egutegia egiten da. ∞ Familien bilera orokorra prestatzen dute. ∞ LH2.mailako taldea utzi zuen tutorea eta 3. mailako tutore berria biltzen dira, talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Familiekin bilera orokorra. Horretan familia guztiei eskola gida helarazten zaie informazio orokorrarekin. ∞ ACIak aurkezten zaie familiei, haiek onartzeko. 	

TUTORETZA PLANA 2017-18

		pasatzeko. Baita 4. maila utzi zuen tutorea 5. mailako tutore berriarekin ere.		
ABENDUAN	∞ Ebaluazio-txostena	∞ Ebaluazio bilerak , taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko.	∞ Ebaluazio-txostena ∞ Familiekin bakarkako bilerak	
MARTXOAN		∞ Ebaluazio bilerak , taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko.	∞ Familiak txosten idatzia jasotzen du ikaslearen ebaluazioarekin.	
EKAINEAN	∞ Ebaluazio-txostena	∞ Ebaluazio bilerak , taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko. ∞ Ziklo bukaeran aktak egiten dira. ∞ ACI eta egokitzapenen balorazioa egiten da. ∞ Ikasturtearen martxa, Tutoretza Plana barne, baloratzen da eta Memoria egiten da. ∞ Kurtso amaieran PIREko I.Eranzkina betetzen da arlo guztiak gainditzeko ez dituzten ikasleei. ∞ LH4. mailako taldea uzten duen tutorea eta 5. mailako tutore berria biltzen dira, talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa pasatzeko.	∞ Ebaluazio-txostena ∞ Familiekin bakarkako bilerak	

TUTORETZA PLANA 2017-18

BEHAR DENEAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikasleekin bakarkako elkarrizketak. ∞ Gatazken ebazpena. ∞ Ikasle zehatzen beharrak detektatzen ditu laguntza bilatzeko. ∞ Gertakarien koadernoak. ∞ Ikas-kontratuak ∞ Ikasle berriak heltzen direnean, Harrera Plana martxan jartzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Bestelako profesionalak interbenitzen badute (Aholkularia, PTA, HIPIa, ALEa, Gizarte-hezitzailea, Eskolako-hezitzailea, ...) tutoreak guztien ekintzak koordinatzen ditu. ∞ Tutoreak eta HIPIak, behar duten ikasleentzat, gelako programazioa egiten dute batera, batez ere Euskara eta Ingurune arloetan. ∞ PIREko II.,III. eta IV. Eranzkinak betetzen dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikasturtean zehar sortzen diren abisuak, informazioak eta iradokizunak komunikatzen dira. ∞ Jarduera osagarriak daudenean (barnetegiak) bilerak egiten dira familiei informazioa helarazteko. ∞ PIREak aurkezten zaizkie familiei, konpromisoa sinatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Eskolan parte hartzen duten zenbait erakundeekin ikasleei buruzko koordinazio bilerak egingo dira (Gizarte zerbitzuak, ...) ∞ Gizarte-Ongitatearekin, ohiko koordinazio bilerak. (Hilabetean behin)
ERA SISTEMATIKOAN, ASTEAN BEHIN	∞ Tutoretza saioa			
URTEAN BEHIN GUTXIENEZ				

3.4. LEHEN HEZKUNTZA. 3.ZIKLOA

DENBORALIZAZIOA LH	TUTOREAK IKASLEEKIN LH-3.ZIKLOA	TUTORE/IRAKASLEAK LH-3.ZIKLOA	TUTOREA FAMILIEKIN LH-3.ZIKLOA	BESTELAKO EREMUAK LH-3.ZIKLOA
IRAILEAN/URRIAN	∞ Tutoreak ikasleei informatzen die zer ordutegi eta irakasleak izango dituzten gai	∞ Tutore bakoitzak, zikloko irakasleekin batera Tutoretza Planaren programazioa egiten du. ∞ ACI-ak eta egokitzen	∞ Familiekin bilera orokorra. Horretan familia guztiei eskola gida helarazten zaie informazio orokorrarekin.	

TUTORETZA PLANA 2017-18

	<p>bakoitzean.</p> <ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikastetxeko elkarbizitza arauak lantzen ditu. ∞ Taldeak ikasle ordezkaria aukeratzen du. ∞ Talde-kohesioa lortzeko dinamikak lantzen dira. 	<p>tutoreak egiten ditu, aholkularia, ikaslearen PT-a eta behar diren espezialisten laguntzarekin. Ikasturtearen hasieran ACI-aren jarraipenerako egutegia egiten da.</p> <ul style="list-style-type: none"> ∞ Familien bilera orokorra prestatzen dute. ∞ LH4.mailako taldea utzi zuen tutorea eta 5. mailako tutore berria biltzen dira, talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa pasatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ ACIak aurkezten zaie familiei, haiek onartzeko. 	
ABENDUAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio-txostena 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio bilerak, taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio-txostena ∞ Familiekin bakarkako bilerak 	
MARTXOAN		<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio bilerak, taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Familiak txosten idatzia jasotzen du ikaslearen ebaluazioarekin. 	
EKAINEAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio-txostena 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio bilerak, taldeko eta bakarkako txostenak prestatzeko irakasle guztien informazioa jasotzeko. ∞ Ziklo bukaeran aktak egiten dira. ∞ ACI eta egokitzapenen balorazioa egiten da. ∞ Ikasturtearen martxa, Tutoretza Plana barne, baloratzen da eta 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ebaluazio-txostena ∞ Familiekin bakarkako bilerak 	

TUTORETZA PLANA 2017-18

		<p>Memoria egiten da.</p> <ul style="list-style-type: none"> ∞ Kurtso amaieran PIREko I.Eranzkina betetzen da arlo guztiak gaituzten ez dituzten ikasleei. ∞ LH6. mailako taldea uzten duen tutorea eta institutukoekin biltzen dira, talde eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa pasatzeko. 		
BEHAR DENEAN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikasleekin bakarkako elkarrizketak. ∞ Gatazken ebazpena. ∞ Ikasle zehatzen beharrak detektatzen ditu laguntza bilatzeko. ∞ Gertakarien koadernoak. ∞ Ika-kontratuak ∞ Ikasle berriak heltzen direnean, Harrera Plana martxan jartzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Bestelako profesionalak interbenitzen badute (Aholkularia, PTA, HIPIa, ALEa, Gizarte-hezitzailea, Eskolako-hezitzailea, ...) tutoreak guztien ekintzak koordinatzen ditu. ∞ Tutoreak eta HIPIak, behar duten ikasleentzat, gelako programazioa egiten dute batera, batez ere Euskara eta Ingurune arloetan. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Ikasturtean zehar sortzen diren abisuak, informazioak eta iradokizunak komunikatzen dira. ∞ Jarduera osagarriak daudenean (barnetegiak) bilerak egiten dira familiei informazioa helarazteko. ∞ PIREak aurkezten zaizkie familiei, konpromisoa sinatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Eskolan parte hartzen duten zenbait erakundeekin ikasleei buruzko koordinazio bilerak egingo dira (Gizarte zerbitzuak, ...) ∞ Gizarte-Ongitatearekin, ohiko koordinazio bilerak. (Hilabetean behin)
ERA SISTEMATIKOAN, ASTEAN BEHIN	<ul style="list-style-type: none"> ∞ Tutoretza saioa 			
URTEAN BEHIN GUTXIENEZ				

4. TUTORETZA SAIOAK ZIKLOKA

4.1. HAUR HEZKUNTZA

1. HIRUHILABETEA

1. Ikasketa kooperatiboaren oinarria lantzeko jolasak

NOLA: Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratuko ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzea eta elkarri ondo ezagutzea izango da.

NOIZ: Iraila - Urrian

2. Klaseko arauak

NOLA: Irakasleak gidatuta, taldeka egin, gero besteei kontatu, geroago adostu eta azkenean onartu eta idatzi kartulina batean klasean eskegitzeko. Gela guztietan, jarrera egokiak eta ez-egokiak irudikatzen dituzten liburuxkak erabiltzen dira

NOIZ: Urrian.

3. Patioko arauak

NOLA: Adostuta ditugun arauak azaldu eta gogorarazi

NOIZ: Urtean zehar

4. Jolasak

NOLA: Astean behin Jolas – tailerraren bidez jolas ezberdinak proposatu eta irakasten zaizkien ondoren patio orduetan erabiltzeko asmoz

NOIZ: Urtean zehar

5. Hezkidetzaren proiektutik proposatutako ekintzak:

5.1. Tolerantziaren eguna (Azaroak 16)

NOLA: Taldeka landu gaia, guztion artean eztabaidatu, kartelak egin pasabideetan ipintzeko, ...

NOIZ: Azaroan

5.3. Proiektuaren arabera beste bat

6. Euskera eguna

NOLA: Pedagogikatik proposatutakoei jarraituz

NOIZ: Abenduan

7. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ...

NOIZ: beharrezkoa denean

2.HIRUHILABETEA

1. Klaseko kohesioa sendotzeko jolasak

NOLA: Liburuan agertzen diren bezala. Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratuko ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzen jarraitzea da.

NOIZ: Urtarrilean

2. Hezkidetza proiektutik proposatutako ekintzak:

2.1. Proiektuaren arabera beste bat

NOIZ: Urtarrilean eta otsailaren 14 arte.

2.2. Emakumeen eguna (Martxoak 8)

NOLA: Material desberdinen bidez, pasabideetan ipintzeko horma-irudi bat egitea, klasean landu eta gero.

NOIZ: Martxoaren 8 arte

3. Euskal astea

NOLA: Proposatutako ekintzetan parte hartzea (irudiak, lemak, tibolina...)

NOIZ: Martxoan eta apirilean

4. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ...

NOIZ: beharrezkoa denean

3.HIRUHILABETEA

1. Hezkidetza proiektutik proposatutako ekintzak:

1.1. Proiektuaren arabera beste bat

NOIZ: Apirilean eta maiatzean

2. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ... (beharrezkoa denean)

NOIZ: beharrezkoa denean

3. Ipuinak, filmeak, ..

NOLA: Baliabide interesgarriak aukeratu baloreak lantzeko: adiskidetasuna, askatasuna, solidaritatea, ...

NOIZ: Maiatzean eta ekainean.

4.2. LEHEN HEZKUNTZA 1. ZIKLOA

1.HIRUHILABETEA

1. Talde kohesioa lantzeko jolasak

NOLA: Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratuko ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzea eta elkarri ondo ezagutzea izango da.

NOIZ: Irailean(egunero) eta kurtsoaren zehar.

2. Klaseko arauak

NOLA: Guztion artean adostu, onartu eta idatzi kartulina batean klasean eskegitzeko.

NOIZ: Urrian.

3. Patioko arauak

NOLA: Klasean irakurri idatzita dagoena (egutegia, komunak...), eta denon artean komentatu eta baloratu. Geroago denok batera komunean ipini esandakoa, arau guztiak barneratzeko.

NOIZ: Urrian

4. Hezkidetza proiektutik proposatutako ekintzak:

4.1. Tolerantziaren eguna (Azaroak 16)

NOLA: Interneten bidez lortu informazioa, komentatu klasean eta kartelak egin pasabideetan ipintzeko.

NOIZ: Urrian eta azaroan.

4.2. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna (Azaroak 25)

NOLA: Gaia aipatzen da, baina adina kontutan hartuta tolerantziarekin lotzen da

NOIZ: Azaroan

4.3. Proiektuaren arabera beste bat

1. Euskera eguna

NOLA: Pedagogikatik proposatutakoei jarraituz

NOIZ: Abenduan

2. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ...

NOIZ: beharrezkoa denean

2.HIRUHILABETEA

1. Klaseko kohesioa sendotzeko jolasak

NOLA: Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratuko ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzen jarraitzea da.

NOIZ: Urtarrilean

2. Hezkidetza proiektutik proposatutako ekintzak:

2.1. Proiektuaren arabera beste bat

NOIZ: Urtarrilean eta otsailaren 14 arte.

2.2. Emakumeen eguna (Martxoak 8)

NOLA: Material desberdinen bidez, pasabideetan ipintzeko horma-irudi bat egitea, klasean landu eta gero.

NOIZ: Martxoaren 8 arte

3. Euskal astea

NOLA: Proposatutako ekintzetan parte hartzea (irudiak, lemak, tibolina...)

NOIZ: Martxoan eta apirilean

4. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ...

NOIZ: beharrezkoa denean

3.HIRUHILABETEA

1. Hezkidetza proiektutik proposatutako ekintzak:

1.1. Proiektuaren arabera beste bat

NOIZ: Apirilean eta maiatzean

2. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ... (beharrezkoa denean)

NOIZ: beharrezkoa denean

3. Pelikula bat

NOLA: Aukeratu pelikula interesgarri bat baloreak lantzeko: adiskidetasuna, askatasuna, solidaritatea, ...

NOIZ: Maiatzean eta ekainean.

2.1. LEHEN HEZKUNTZA 2. ZIKLOA

1.HIRUHILABETEA

1. Ikasketa kooperatiboaren oinarria lantzeko jolasak

NOLA: Liburuan agertzen diren bezala. Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratuko ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzea eta elkarri ondo ezagutzea izango da.

NOIZ: Urrian

2. Klaseko arauak

NOLA: Taldeka egin, gero besteei kontatu, geroago adostu eta azkenean onartu eta idatzi kartulina batean klasean eskegitzeko.

NOIZ: Urrian.

3. Patioko arauak

NOLA: Taldeka irakurri idatzita dagoena (egutegia, baloirik gabeko astea, komunak...), eta denon artean komentatu eta baloratu. Geroago denok batera komunean ipini esandakoa, arau guztiak barneratzeko.

NOIZ: Urrian

4. Hezkidetzaren proiektutik proposatutako ekintzak:

4.1. Tolerantziaren eguna (Azaroak 16)

NOLA: Taldeka landu gaia, interneten bidez lortu informazioa, eztabaidatu klasean definizio bakarra ateratzeko, kartelak egin pasabideetan ipintzeko, Tiboliko dekalogoia sortu, ipuinak asmatu, irudien bidez besteei erakutsi ...

NOIZ: Urrian eta azaroan.

4.2. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna (Azaroak 25)

NOLA: Taldeka landu gaia, interneten bidez lortu informazioa, eztabaidatu klasean zer den, zergatik gertatzen den ...

Kartelak edo muralak egin pasabideetan ipintzeko

Beste klasekoen inplikazioa lortu, haiek asmatutako ekintzen bidez...

NOIZ: Azaroan

4.3. Proiektuaren arabera beste bat

3. Euskera eguna

NOLA: Pedagogikatik proposatutakoei jarraituz

NOIZ: Abenduan

4. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ...

NOIZ: beharrezkoa denean

2. HIRUHILABETEA

1. Klaseko kohesioa sendotzeko jolasak

NOLA: Liburuan agertzen diren bezala. Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratuko ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzen jarraitzea da.

NOIZ: Urtarrilean

2. Hezkidetza proiektutik proposatutako ekintzak:

2.1. Proiektuaren arabera beste bat

NOIZ: Urtarrilean eta otsailaren 14 arte.

2.2. Emakumeen eguna (Martxoak 8)

NOLA: Material desberdinen bidez, pasabideetan ipintzeko horma-irudi bat egitea, klasean landu eta gero.

NOIZ: Martxoaren 8 arte

3. Euskal astea

NOLA: Proposatutako ekintzetan parte hartzea (irudiak, lemak, tibolina...)

NOIZ: Martxoan eta apirilean

4. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ...

NOIZ: beharrezkoa denean

3.HIRUHILABETEA

1. Hezkidetza proiektutik proposatutako ekintzak:

1.1. Proiektuaren arabera beste bat

NOIZ: Apirilean eta maiatzean

2. Haien arteko harremanak, klaseko giroa, sortzen diren arazoak, sentimenduak ... (beharrezkoa denean)

NOIZ: beharrezkoa denean

3. Pelikula bat

NOLA: Aukeratu pelikula interesgarri bat baloreak lantzeko: adiskidetasuna, askatasuna, solidaritatea, ...

NOIZ: Maiatzean eta ekainean.

4.4. LEHEN HEZKUNTZA 3. ZIKLOA

1. HIRUHILABETEA

1. Ikasketa kooperatiboaren oinarria lantzeko jolasak

NOLA: Liburuan agertzen diren bezala. Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratu ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzea eta elkarri ondo ezagutzea izango da.

NOIZ: Urrian

2. Klaseko arauak

NOLA: Taldeka egin, gero besteei kontatu, geroago adostu eta azkenean onartu eta idatzi kartulina batean klasean eskegitzeko.

NOIZ: Urrian.

3. Patioko arauak

NOLA: Taldeka irakurri idatzita dagoena (egutegia, baloirik gabeko astea, komunak, ...), eta denon artean komentatu eta baloratu. Geroago denok batera komunean ipini esandakoa, arau guztiak barneratzeko.

NOIZ: Urrian

4. Tolerantziaren eguna (Azaroak 16)

NOLA: Taldeka landu gaia, interneten bidez lortu informazioa, eztabaidatu klasean definizio bakarra ateratzeko, kartelak egin pasabideetan ipintzeko, Tiboliko dekalogoia sortu, ipuinak asmatu, irudien bidez besteei erakutsi ...

NOIZ: Urrian eta azaroan.

5. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna (Azaroak 25)

NOLA: Taldeka landu gaia, interneten bidez lortu informazioa, eztabaidatu klasean zer den, zergatik gertatzen den ...

Kartelak edo muralak egin pasabideetan ipintzeko

Beste klasekoen inplikazioa lortu, haiek asmatutako ekintzen bidez...

NOIZ: Azaroan

6. Gabonen aurrean: kontsumo arduratsua

NOLA: Taldeka landu gaia, interneten bidez lortu informazioa, eztabaidatu klasean zer egin behar dugun, zergatik, bilatu ondorio onak eta txarrak ...

NOIZ: Abenduan

2.HIRUHILABETEA

1. Klaseko kohesioa sendotzeko jolasak

NOLA: Liburuan agertzen diren bezala. Tutore bakoitzak jolas desberdinak aukeratuko ditu bere ikasle eta beharren arabera. Helburua taldea sendotzen jarraitzea da.

NOIZ: Urtarrilean

2. Hezkidetza

NOLA: Material desberdinen bidez, neska eta mutilen berdintasuna eta desberdintasuna lantzea: iragarki bat aztertzea generoren perspektibatik.
13-14 ikasturtean: "Nahiko" programa.

5. mailakoentzat: Bizitza proiektua.

6. mailakoentzat: Kidetasunez bizi.

NOIZ: Urtarrilean eta otsailaren 14 arte.

3. Emakumeen eguna (Martxoak 8)

NOLA: Material desberdinen bidez, pasabideetan ipintzeko horma-irudi bat egitea, klasean landu eta gero

NOIZ: Martxoaren 8 arte

4. Hezkidetza

NOLA: Hasitako "Nahiko" programarekin jarraituko dugu.

NOIZ: Martxoaren 10tik 28ra arte.

5. Euskal astea

NOLA: Proposatutako ekintzetan parte hartzea (irudiak, lemak, tibolina...)

NOIZ: Apirilean

3.HIRUHILABETEA

1. Liburuaren eguna generoren perspektibatik (Apirilak 23)

NOLA: Egile emakume bat hartu eta bere bizitza aztertzea. Horma-irudi batean emakume hauen lanak eta ideiak adieraztea

NOIZ: Apirilean

2013-14: oporretan egongo garenez, ez dugu egingo.

1. Pelikula bat

NOLA: Aukeratu pelikula interesgarri bat baloreak lantzeko: adiskidetasuna, askatasuna, solidaritatea, ...

NOIZ: Maiatzean.

TUTORETZA PLANA

VDA. DE
EPALZA HLHI

2016 - 2017